

IBILGAILUEN PASABIDERAKO LIZENTZIAK EMATEA ARAUPETZEN DUEN ORDENANTZA

ARAU OROKORRAK

1. art. Xedea eta araubide juridikoa

Ordenantza honen xedea da ibilgailuak espaloietatik edo oinezkoen guneetatik pasatzeko lizentzia emateko betekizunak eta prozedura ezartzea, baita ibiak ere.

Herri jabariko ondasunen erabilera komun berezia da ibilgailuak finketatik herri bidera irtetea eta sartzea, eta horretarako, baimena lortzeko ordenantza hau eta jabariaren gaineko arauak bete beharko dira.

Aplikatu beharreko araudien artean, Eusko Legebiltzarrak irisgarritasunaren sustapenari buruz abenduaren 4an emandako 20/1997 Legea nabarmendu behar da; izan ere, hiri gune, herri gune, eraikin, garraiobide eta informazio eta komunikazio sistemen irisgarritasuna bermatzeko onetsi da Legea, eta pertsona guztiek modu autonomoan erabil ditzakete horiek eta, bereziki, mugikortasun murriztua, komunikatzeko zailtasunak edo aldi baterako edo behin betiko beste edozein muga psikiko edo zentzumenen muga duten pertsonak. Bestalde, apirilaren 11ko 68/2000 Dekretua ere onetsi da lege hori garatzeko, irisgarritasunaren baldintzei buruzko arau teknikoak onetsi dituen, eta zehazkiago, Dekretuaren herri guneei eta gizarte ekipamenduei buruzko II. eranskina.

2. art. Ibia

Ordenantza honen ondorioetarako, herri bideko oinezkoen espaloiko eta zintarriko egituraren edozein aldaketari deritzo ibi, hain zuzen ibilgailuak lokaletan sartzea eta lokaletatik ateratzea errazteko, baita ibilgailuak uzten diren aurreko finketan dauden lokaletan eta orubeetan sartzea eta irtetea ere.

3. art. Aparkatzea debekatzea

Debekatuta dago ibilgailuak ibien gainean eta seinaleetan edo aurrealdean aparkatzea. Hala ere, ibiaren aurrean gelditu ahal izango da, gidaria ibilgailuan egotea beharrezkoa denean ibilgailua mugitzeko.

PROZEDURAKO ARAUAK

4. art. Eskatzaileak

Ibilgailuak pasatzeko lizentzia eska dezakete finken jabeek eta, hala denean, titularrak izan daitezke, baita lokaletan, establezimenduetan edo instalazioetan sartzeko modua ematen duen erabileraren nahikoa titulua dutenak ere.

5. art. Eskakizunak

Pasatzeko lizentzia eskatzeko, baldintza hauek bete behar dira:

1. – Establezimendu komertzialak edo industrialak.

a) Irekiera lizentzia izatea edo, bestela, obra edota jarduera lizentzia egiaztatzea, kasuaren arabera.

b) Jarduerak nahitaez eskatzea ibilgailuak sartzea eta irtetea.

c) 3.500 kg-ko karga-edukiera duen ibilgailuak zamalanetarako nahikoa tokia izatea, eta toki hori soilik horretarako erabiliko da, baita maniobrak egiteko gune bat ere, hurrengo atalean eskatzen diren baldintzak betetze aldera.

d) Ibilgailuak beti aurrez sartu eta irten ahal izatea.

Jardueraren xede nagusia ibilgailua den establezimenduan, ibilgailuak gordetzeko eskaturikoak izango dira lizentzia emateko baldintzak.

2. – Ibilgailuak gordetzea.

a) Irekiera lizentzia izatea edo, bestela, obra edota jarduera lizentzia egiaztatzea, kasuaren arabera.

b) Lokalak, garajeak edo aparkalekuak gutxienez 5 turismo edo 3.500 kg-tik beherako furgonetak edo karga handiagoko bi kamioi hartzeko edukiera izatea.

c) 20 m²/ibilgailuko azalera librea izatea autoak edo furgonetak badira, eta 40 m²/ibilgailuko kamioiak badira.

d) Ibilgailuak beti aurrez sartu eta irten ahal izatea.

3. - Familia bateko etxebizitzak.

Aurreko ataleko c) eta d) hizkiak betetzea eskatuko da.

Salbuespenez, ibilgailuak pasatzeko lizentzia emateko organo eskudunak salbuetsi egin dezake zenbait establezimendu artikuluko honetako 1, 2 eta 3. ataletako d) puntuan ezarritako baldintzak

betetzetik, establezimendu komertzialak eta industrialak, ibilgailuak gordetzekoak edo familia bateko etxebizitzak, baldin eta aurrez sartzeko eta irteteko maniobra galarazten duen egitura badute. Alabaina, kasu horietan soilik eskuratu ahal izango da lizentzia baimena ibilgailuen sarrerak eta irteerak autoen trafikoaren segurtasuna eta herri bideko edozein erabiltzaileren segurtasuna ukitzea badakarte. Lerroalde honetan xedaturikoa aplikatzeko, lehenik eta behin higiezinaren egiturak aipaturiko maniobra egitea galarazten duela egiaztatu behar du eskatzaileak, eta bigarrenik, Udaltzaingoak emandako txostena aurkeztu, ibilgailuen sarrerak eta irteerak herri bideko trafikoaren segurtasuna ukitzen ez dutela adierazten duena.

6. art. Dokumentazioa

Agiri hauek aurkeztu beharko dira lizentzia eskabidearekin batera:

- a) Aurreko artikuluan aipatzen den lizentziaren kopia.
- b) Eraikinaren kokapenaren planoak.
- d) Jardueraren deskribapen laburra, lokalean sartzan diren ibilgailuen eguneko batez bestekoa dakarrena.

7. art. Izapideak

Interesa duenak eskatuta prozedura hasi ondoren, ofizioz egingo dira izapide guztiak, eta ebazpena emateko beharrezko txostenak bilduko dituzte udalaren zerbitzu teknikoek.

8. art. Hutsuneak konpontzea eta eskabideak hobetzea

Baldin eta eskabideak ordenantza honetan eskaturiko baldintzak betetzen ez baditu, hauxe eskatuko zaio eskatzaileari: 10 eguneko epearen barruan, Herri Administrazioetako Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen (4/1999 Legeak aldatua) 71. artikuluan xedatu diren ondorioetarako manuzkoak diren dokumentuak aurkezteko, horrelakorik ez badu aurkeztu.

9. art. Lizentzia ematea

- 1.- Alkateari edo alkateak eskuordeturiko zinegotziari dagokio ordenantza honen xedeko lizentziak ematea.
- 2.- Udalaren zerbitzu teknikoek pasatzeko lizentziaren berri eman ondoren, ibia egiteko obren lizentzia ematea edo ukatzea erabakiko du organo eskudunak, ordenantza honen 14. artikuluan ezarri denarekin bat etorritz.
- 3.- Ibia egiteko lanak bukatuta eta udalaren zerbitzu teknikoek horri buruzko aldeko txostena eginda, pasatzeko lizentzia ematearen aldeko proposamena egingo da, non modalitatea, indarraldia eta beharrezko baldintzak agerraraziko baitira.

4.- Pasatzeko lizentzia eman baino lehen, hauexek egiaztatu beharko ditu eskatzaileak:

- a) Lokala irekitzeko edota lehen aldiz erabiltzeko lizentzia eskuratu izana, kasuaren arabera.
- b) Udalaren ordenantza fiskaletan ezarritako betebeharrak ekonomikoak ordaindu izana.

IBIEN EZAUGARRIEI ETA BURUTZAPENARI BURUZKO ARAUAK.

10. art. Ibiaren tamaina

1. Ibi bakoitzaren luzera zein den ezartzeko, kontzeptu hauek izan beharko dira kontuan:

- a) Ibilgailuak pasatu ahal izateko kasu bakoitzean ordeztu edo aldatu beharreko zintarriaren edota espaloaren neurriari deritzo ibiaren luzera.
- b) Ibilgailuak pasatzeko lokalak edo finkak fatxadaren duen bao librea da ibilgailuen sarrera. Fatxadak herri biderako aurrealde zuzenik ez duenean eta finkak bide horrekiko itxiera perimetral mugakidea duenean, lokalean edo partzelan sartzeko bao librea izango da sarrera.

11. art. Baldintza teknikoak

1. Ibia eraikitzeko, baldintza hauek bete beharko dira:

- a) Ibiaren eraikuntzak ez du sestra ofiziala edo fatxadaren eta espaloaren arteko elkargune-lerroa aldaraziko.
- b) Ibia sarreran zentratuta egingo da beti, eta ezin izango du ukitu inola ere oinezkoen pasagunea.
- c) Zuhaitzetik eta hiriko edozein altzaritatik metrotik gorako distantziara jarriko dira ibiaren mugak. Baldin eta beren beregi ematen bada baimena hiri altzariak tokiz aldatzeko ibilgailuak pasa daitezkeen, udalaren ikuskaritzapean burutu beharko du ekintza hori eskatzaileak.

2. Zenbait kale txikiak direnean edota trafikoaren baldintzak edota intentsitatea hala egitea komeni denean, ibilgailuak pasatzeko lizentziak gaitziritzi ditzake kale horietan edo kale horretan beharrezkoak diren zatietan.

12. art. Ibiaren seinalea

Lokalean edo eraikinean ipini beharreko bereizgarri edo seinale batean jarri beharko da ibilgailuak pasatzeko lizentziaren modalitatea, ibiaren aurrean herri bidetik ondo ikusten den tokian.

Udalak bereizgarria edo seinalea emango dio lizentziaren titularrari lizentzia emandakoan.

13. art. Lizentziaren titularraren betebeharrak

Pasatzeko lizentziaren titularrak betebeharrak hauek bete beharko ditu:

- a) Ibia eta horren seinaleak egoera onean mantentzea.
- b) Udalari lizentzia ematean aintzat harturiko baldintzen eta inguruabarren edozein aldaketa jakinaraztea 15 eguneko epean, aldaketa gertatu den egunetik zenbatzen hasita.
- c) Udalaren ordenantza fiskalak ezarritako tasak ordaintzea.
- d) Udalak agindutako ohiko edo ezohiko obrak egitea ibian.
- e) Zintarria eta espaloia berriz egitea lizentzia eman deneko epealdia igaro ondoren, edo lizentzia iraungitakoan, lizentzia ezeztatu denean, edo titularrak lizentzia bukatzeko eskatzen duenean, kasu guztietan lizentziaren indarraldia bukatzeko aurretiazko eskakizun gisa.

PASATZEKO LIZENTZIARI UKO EGITEA, IRAUNGIPENA ETA EZEZTATZEA

14. art. Uko egitea

Pasatzeko lizentziaren titularrak, lizentziaren indarraldiko edozein unetan, baimendutako lizentzia desagerrarazteko eska dezake.

15. art. Iraungipena

1. Lizentziaren iraungipena ekarriko du titularra eta lizentzia eman deneko jarduera aldatzeak.

Aurreko kasuetan, lizentzia berria eskatu duen pertsona subrogatu egin daiteke aurreko titularrak eginiko ibien gaineko eskubideetan, eta beharrezkoa balitz, indarreko eredura egokituko du ibia.

2. Halaber, pasatzeko lizentzia iraungi egingo da lizentzia eman deneko epealdia bukatzean, ordenantza honen 12. artikuluan xedatu denari kalterik egin gabe.

16. art. Ezeztatzea

Udalak pasatzeko lizentzia ezeztatzea ekarriko du lizentziaren titularrari ezarritako betebeharrak ez betetzeak.

17. art. Zintarria eta espaloia leheneratzea

Aurreko artikuluetan lizentziari uko egiteko, iraungitzeko edo ezeztatzeko aipaturiko kasuetan, bere pentzura kendu beharko du eskatzaileak ibia, eta zeuden moduan utziko ditu zintarria eta espaloia.

Pasatzeko lizentzia ez da bukatuko harik eta titularrak ibia kentzeko beharra bete arte.

ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK

18. art. Arau-haustek

Ordenantza honen edozein betebeharrak eta arau-urratze izango da arau-haustea eta, bereziki, pasatzeko lizentzia behar bezala erabiltzearen eta ibia zaintzearen gainekoak eta seinaleen gainekoak.

Hirigintzaren edo trafiko eta bide-segurtasunaren arloko legerian xedaturiko arau-hausteei kalterik egin gabe, ondokoak ezarri dira:

a) Arau-hauste arinak:

1. Ibilgailuak espaloitik sartzea edo irtetea baimenik izan barik.
2. Ibia kentzeko eskaera egiten denetik zenbatzen hasita hiru hilabete igarotzen badira eta lizentziaren titularrak beharrezko obrak egin ez baditu espaloia eta zintarria zeuden moduan uzteko.
3. Artikulu honetan larrizat edo oso larrizat jotzen ez den ordenantzako beste edozein manu haustea.

b) Arau-hauste larriak:

1. Pasatzeko lizentziaren seinalea jartzen bada arauzko plakak jartzeko baimenik izan barik.
2. Ibilgailuak sartzeak eta irteteak dakarten erabilera berezia dela-eta izandako kalteak konpontzen ez badira, titularrari konponketa ezarritako epeetan egiteko eskatu ondoren.
3. Ibia kentzeko eskaera egiten denetik sei hilabete igarotzen badira eta lizentziaren titularrak beharrezko obrak egin ez baditu espaloia eta zintarria zeuden moduan uzteko.

c) Arau-hauste oso larriak:

1. Ibiak eraikitzea baimena edo lizentzia lortu gabe.
2. Pasatzeko lizentziaren plaka lizentzian baimendutako ez beste toki batean jartzea.

19. art. Zehapenak

Aurreko artikuluko arau-hausteei honako zehapen hauek ekar ditzakete.

- a) Arau-hauste arinak: gehienez 300 euroko isuna.
- b) Arau-hauste larriak: 300 - 600 euroko isuna.
- c) Arau-hauste oso larriak: 600 - 900 euroko isuna.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Ordenantza hau indarrean jarri baino lehen baimendutako ibien lizentziek bete egin beharko dituzte lizentzia emateko emandako baldintzak, eta bost urteko epean obren burutzapena bete beharko da, irisgarritasunaren sustapenari buruzko 20/1997 Legearekin eta hura garatzen duen 68/2000 Dekretuan ezarritakoarekin bat etorritz.

Halaber, ibilgailuak pasatzeko lizentzia emateari buruzko ordenantza hau indarrean sartu eta gehienez hamar urteko epean, ordenantzaren artikulua guztiak betetzeko eskatuko zaie baimendutako lizentziei ordenantza indarrean sartu baino lehen.

Aurreko lerroaldean ezarritakoa gorabehera, baldin eta, kasuan kasuko inguruabarrei erantzuna emanda, ezinezkoa bada ordenantzaren zehaztapan guztietara erabat egokitzea, ibiaren lizentzia luzatzeko baimena eman ahal izango da, betiere beharrezkotzat jotzen diren zuzenketa neurriak betetzen badira.

Ez da aplikatzekoa izango xedapen honen aurreko lerroaldeetan emandako epeei dagokienez xedatu dena baldin eta Udalak zoladura osorik edo zati batez berritzeko lanak egiten baditu kale batean, halako moldez non, hala gertatzen denean, kale horretan dauden ibien lizentzien titularrak nahitaez bete beharko baitituzte ordenantzaren artikulua esandako obrak burutzen diren unean.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Baliorik gabe gelditzen dira ordenantza honek dakartzan manu hauen kontrako edo bat ez datozen udal xedapen guztiak.

Bertan ezarrita ez dagoenari dagokionez, tokiko araubidearen arau orokorretan xedatu dena bete beharko da.

AZKEN XEDAPENA

Ordenantza honek ondorioak izango ditu Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta ondorengo hamabost egun baliodunen buruan.